


Enpresa-ondarearen % 24,7 enpresa handietan dago, eta enplegu osoaren % 12,4 dira

Ez-finantzazko enpresetako aktiboen % 47,1 industriaren sektoreari dagozkio

Eustaten datuen arabera, enpresa handiak (250 langile baino gehiagokoak) dira kapital intentsiboena dutenak, okupazioaren % 12,4rekin ekonomiaren aktibo osoaren % 24,7 izan baitute 2008an. Enplegu-geruzetan ondarea nola sailkatuta dagoen begiratzuz gero, ikusten da gainerako enpresek –mikroenpresek (1-9 langile), txikiek (10-49 langile) eta ertainek (50-249 langile)- landunen % 87,6 okupatzen dituztela eta aktiboen % 75,3 dituztela. Are gehiago, mikroenpresek enpresa-ondarearen % 36,5 kontzentratzen dute eta enplegu osoaren % 42,6.

Euskal AEko ez-finantzazko enpresei 2008an zenbatetsitako ondarea 185.106 milioi eurokoa izan da, eta horien % 47,1 industria sektoreari dagozkio. Gainerako aktiboen % 44,8 zerbitzuen sektoreari dagozkio eta % 8,1 eraikuntzarenari. Hiru sektore hauetako ez-finantzazko enpresek 816.396 laguni ematen diete lana Euskal AEn; 2008ko landun guztien % 80,2ri.

Euskal AEko ez-finantzazko enpresen aktiboa eta pasiboa 2008



Iturria: Eustat. Ez-finantzazko enpresen ondare-kontuak

Balantzearen aktiboan partidek duen pisuari dagokionez, osoaren % 53,3 aktibo ez-mugikorra da eta aktibo mugikorra % 46,7 da. Aktibo ez-mugikorreko epigrafeen barruan, ibilgetu materiala nabarmendu beharra dago, garrantzitsua baita (% 49,0) eta taldeko enpresetako eta enpresa bazkideetako inbertsioak ere hala dira (% 33,2). Aktibo mugikorrean nabarmentzen diren partidak ere bi dira: Zordun komertzialak, osoaren % 39,9rekin, eta Izakinak, % 28,3rekin.

Balantzearen ondare garbiari eta pasiboari dagokionez, bere epigrafeen parte hartzea honakoa da: Ondare garbia osoaren % 39,3 da, pasibo mugikorra % 36,3 eta pasibo ez-mugikorra % 24,4. Ondare garbiari dagokionez, Fondo propioak nabarmentzen dira bi partida garrantzitsurekin: Erreserbak, % 47,1eraino iristen direnak, eta Kapitala, % 31,9.

Ez-finantzazko enpresen ondare-multzo nagusiak Euskal AE. 2008 (milaka €).

	C.A. DE EUSKADI	ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Aktibo ez-mugikorra	98.714.745	14.187.143	57.998.364	26.529.238
Aktibo mugikorra	86.391.129	14.888.634	44.588.131	26.914.364
- Izakinak	24.415.425	5.119.345	11.686.441	7.609.639
- Erabilgarria	10.098.510	1.425.375	5.614.827	3.058.308
- Bihurgarria	51.877.194	8.343.914	27.286.863	16.246.417
Aktiboa guztira	185.105.874	29.075.777	102.586.495	53.443.602
Ondare garbia	72.771.032	11.092.638	40.504.953	21.173.441
Pasibo ez-mugikorra	45.093.709	6.915.827	25.596.374	12.581.508
Pasibo mugikorra	67.241.133	11.067.312	36.485.168	19.688.653
Pasiboa guztira	185.105.874	29.075.777	102.586.495	53.443.602
Laneko kapitala	19.149.996	3.821.322	8.102.963	7.225.711

Fuente: Eustat. Ez-finantzazko enpresen ondare-kontuak

Aktiboa sektoreka banatzerakoan, argi geratzen da Euskal AEko ekonomian industriak duen garrantzia. Aktiboen % 47,1 industria sektoreari dagozkio eta enpleguaren % 30,7 du: eraikuntzak aktiboaren % 8,1 du eta enpleguaren % 11,8 eta, azkenik, merkatuko zerbitzuek ondarearen % 44,8 dute eta enpleguaren % 57,5.

Alde nabariak daude eraikuntza-enpresetako pasiboen osieran eta industriako eta merkatuko sektoreetakoaren artean. Eraikuntzaren sektorean epe laburreko pasibo mugikorraren % 51,0 dago, industrian % 34,1 eta merkatuko zerbitzuetan % 36,1.

Enpresako aktiboak sektoreka nola osatuta dauden begiratzuz gero, kasu honetan ere alde nabarmenak daude. Eraikuntzako aktibo mugikorra aktibo osoaren % 77,8 da, industrian % 39,6 eta merkatuko zerbitzuetan % 48,4.

Balantzeen azterketan **Laneko kapitala** (aktibo mugikorraren eta pasibo mugikorraren arteko aldea) positiboa da, 19.150 milioi eurokoa. Horrek esan nahi du epe laburreko zorrak (epe laburrean eska daitezkeenak) puntualki artatzeko adina baliabide sortzen dela. Baina enpresa-sektoreko balantzeen egitura desberdinen ondorioz, eraikuntza sektoreko enpresen laneko kapitala aktiboaren % 26,9 da, industrian % 5,6 eta merkatuko zerbitzuetan % 12,4.

Ohar metodologikoa

Kontabilitateko Plan Orokor berrira egokitu da eragiketa, merkataritzako legedia kontabilitate arloan egokitzearen ondorioz sortu da hori, Europar Batasuneko araudian oinarrituta nazioartean bateratzeko eta Europar Batzordeko gomendioei jarraituaz egin da.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es